

Egungo Euskararen Hiztegia

—C—

[bertsioa: 2024-01-09]

caboverdetar *izlag/iz* Cabo Verdekoa, Cabo Verderi dagokiona; Cabo Verdeko herritarra.

Adelia de Crisanta zen, atzerrira ontziraturako sei semearen ama, denak ere mundura ekarri zituenaz ahaztuta, ez baita alferrik esaten munduan ez dela **caboverdetarren** semea bezain esker txarrekorik. **Bego Montorio**

cadillac *iz* Cadillac markako autoa; garai bateko luxuko autoa.

Auzoa jaguarrez, **cadillacez** eta luxuko automobileren bete zen, espaloiak eta eliz aurreko plaza handik eta hemendik etorritako enekozalez eta kuxkuxeroz. **Joan Mari Irigoien**

Zitzu bizian zetozen kamioi edo **cadillac** gorrietarik bat. **Itxaro Borda**

Kosheren **cadillac** arrosaren irudi distiratsua. **Itxaro Borda**

Edo **cadillac** beilegiaren erosteko elastikaz baturik dolar orlegi metak. **Itxaro Borda**

Biscayne bulebarrean topatu nuen, Gabon-egunean, ilunabarrean... autoan sartzera zihoan: **Cadillac** kabrioleta, kalea bezain luzea! **Xabier Paya**

cadiztar *izlag/iz* Cadizkoa, Cadizi dagokiona; Cadizko herritarra.

Chano Dominguez piano jotzaile **cadiztarraren** saioak. **Berria - Kultura**

Musika hau berrinterpretatu du bere jatorri **cadiztarrak** eta beraz, andaluziarrak ematen dion ikuspuntutik. **Berria - Kultura**

ZP Iberiako Penintsularen ileko zoldaren aurkako xanpua zela esan ei zion **cadiztar** batek PSOEko buruari. **Berria - Ekonomia**

calagorritar ik kalagorritar.

Calcio *iz* italiar futbol liga.

Gure helburua **Calcio**-a da. **Berria - Kirola**

Nahiz eta **Calcioan** ez dagoen ondo sailkatuta jokalarik gazteak, onak eta lehiakorrik ditu. **Berria - Kirola**

Egun ez daude **Calcio**ko puntako taldeen artean. **Berria - Kirola**

Calcio-ko liderraren kontra, ezustea ematen saiatzea besterik ez zaio geratzen. **Berria - Kirola**

camping (9 agerraldi, 5 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 508 agerraldi; cf **kanpin** 185 agerraldi, 39 liburu eta 43 artikulutan; ETCn 1.619 agerraldi) *iz* kanpina.

Karakorum-en egon beharrean **Pirinioetako** camping batean nengoela iruditu zait. **Xabier Montoia**

Taldean gaudela esan zieagu, **camping** egitera etorriak garelara. **Rafa Egiguren**

Beraz, gaur Bordeleatik abiatzen dira, expeditzioko hiru **"Camping Car"** delakoak, astelehenean, Suediara heltzeko gisan. **Herria**

campus (267 agerraldi, 16 liburu eta 114 artikulutan; ETCn 3.611 agerraldi; orobat **kanpus** 35 agerraldi, 4 liburu eta 13 artikulutan; ETCn 296 agerraldi) *1* *iz* unibertsitate baten jarduera gauzatzen den eremu eta egoitzen multzoa.

Donostiako Ibaeta **campuseko** Filosofia Fakultatean. **Berria - Ekonomia**

Deustuko Unibertsitatearen Gipuzkoako **campusean**. **Herria**

Campusen, zentroen eta departamentuen deszentralizazioa proposatzen duzu. **Berria - Euskal Herria**

Garbi daukat Leioako **campusa** Parke Teknologikoa balitz, metroa bertaraino iritsiko litzatekeela. **Joxerra Garzia**

Ahmedabad-en, unibertsitateko **kanpusean** paseatzen ari nintzela. **Gotzon Garate**

Gauetz **kanpusa** zaintzeko bi zakur izan ditugu aspaldidanik Deustuko Unibertsitatean. **Gotzon Garate**

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak, gaur egun, Bellaterran du **campus** nagusia. **Joxerra Garzia**

Igande goizean, **campus** hutsera doa autoz, eta saileko bulegora sartzen da. **Oskar Arana**

Campusak ere leku bakartiak izan daitezke, ez pentsa. **Bernardo Atxaga**

Ohar hau argitaratu eta zabaldu zuen Leioako **campusean** Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Dekanoak. **Joxerra Garzia**

Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkarteak (EIRE) eta Deustuko Unibertsitateko Donostiako **campuseko** lankideek omendu zuten 2002an. **Berria - Kultura**

Bakarrik abiatu nintzen **kanpuseko** jantokira. **Iban Zaldua**

Martxoaren 5ean ekin zioten itxialdiari Leioako **campuseko** kafetegiarenean. **Berria - Euskal Herria**

Campuseko zelaian kanpadenda jarrita. **Berria - Euskal Herria**

Campuseko cocktail party-an ezagutu zuenetik ezin zuen errubia oxigenatu hura burutik kendu. **Patxi Iturritegi**

Arabako **campuseko** errektoreordeak Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako **kanpuseko** kargudunak etorri dira diploma emaitza horretara. **Herria**

Artaldean sartuta, **campusera** iritsi zen. **Joxemari Iturralde**

Ideia beste bertsio bat aldarrikatzen hasiak dira azken bolada honetan, euskarazko **Campusarena**, alegia. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Campus eredu berri bat sortzeko genuen ideia ere gauzatzen ari gara. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irun eta Madril lotzen dituen trenbidea hiri erditik pasatzen da, eta hegoaldeko gaurko auzoak zein Arabako unibertsitate **campusa** hiritik bazterten ditu. **Berria - Harian**

Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza **campuseko** ikasleen Batzordeak. Berria - Euskal Herria

Era berean, Monterok «polizia eta kamaraz jositako kontzentrazio **campusa**» uzten duela azpimarratu zuen Ikasle Abertzaleetako kideak. Berria - Euskal Herria

Gutzira, 290.000 m2 ditu Rogert Tallibert arkitekto frantsesak diseinatutako kirol **campusak**. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

campusa martxan (3); **leioako campusa** (3); **talent campus** (4); **tuterako campusa** (8); **tuterako campusa martxan** (3)

arabako campusean (4); **campusean egin** (3); **campusean itxialdia** (5); **campusean itxialdia egiteagatik** (3); **donostiako campusean** (6); **donostiako ibaetako campusean** (6); **ehuko leioako campusean** (3); **ehuren leioako campusean** (7); **ibaetako campusean** (12); **leioako campusean** (30); **leioako campusean itxialdia** (5); **unibertsitatearen donostiako campusean** (3)

arabako campuseko (17); **arabako campuseko errektoreordea** (7); **bizkaiko campuseko** (10); **bizkaiko campuseko errektoreordea** (7); **bizkaiko campusekoa** (3); **bizkaiko campusekoa ez** (3); **campuseko errektoreordea** (23); **campusekoa ez den** (3); **gipuzkoako campuseko** (9); **gipuzkoako campuseko errektoreordea** (9); **leioako campuseko** (10)

canariar ik **kanariar**.

cancer (*robat kantzer*) iz Zodiakoko konstelazioa; zodiakoaren laugarren zeinua; latinez 'karramarroa' esan nahi du.

Cancer konstelazioan dago (Karramarroa ere deitzen da zenbaitetan), eta arratsean zehar ekialdetik mendebaldera higituko da. Berria - Gaiak

Planeta sistema hori Lurretik 41 argi-urtera dago, **Kantzerren** konstelazioan. Berria - Gaiak

-Cancer dator gero: petxua, birrikak, bularrak, urdaila, gibela eta besikula edo xixkua. Pello Zabala

Leoren bularretik eta **Cancerren** bukaeratik atera ondoren eguzkiak Leoren gainerako parteak zeharkatzen ditu eta egunaren iraupena eta bere orbitaren luzera mozten ditu, Geminisen egiten zuen bide berdina egitera itzuliz. Santiago Iruretagoiena

cannabinoide *izond/iz* cannabisaren kideko gaiez dagokiena.

Hainbat funtzio organiko eta mental kontrolatzen dituen sistema **cannabinoidearen** identifikazioaren bidez zabaldu zen kalamuaren eragin terapeutikoa ulertzeko bidea.

Berria - Harian

Zientzilariek **cannabinoideak** injektatu zizkieten gliomak zituzten arratoiei. 70eko hamarkadaren erdialdera ikerketek gora egin eta 80koaren hasieran **cannabinoide** endogeno batzuk eta euren hartzaile espezifikoak aurkitu ziren. Berria - Gaiak

cannabis (*robat kanabis g.er. eta kanabiz g.er.*) **1** iz kalamu indikoa; kalamu indikoaren zurtoin, hosto eta lore idorrazietatik ateratzen den hautsa, haxixaren eta kideko beste zenbait drogaren oinarria dena.

'**Cannabis**' hitza nire kulturaren hitz bat da, 'haxixa' bezala, elkartasunaren zentzua erakutsi ziguna, ezberdin bizi gintezkeen ustea ekarri ziguna, gure kreatibitatearen sena, nora zihono oso ondo ez genekiena, askatuago eta erotuago bizi zedin laguntzen zigun bitartean. Pako Aristi

Arto-landareen artean *dagga* hazten zuten, **cannabisa**. Gehien kontsumitzen diren opioideak [...] morfina eta heroina dira eta azkenik, haluzinogenoetan, **cannabisa**, fenciclidina eta LSD dira herritarrek gehien hartu ohi dituztenak. Oskar Arana

Euskal gizarteak **cannabisaren** kontsumoa onartu egin du; gehienek **cannabisa** legezkatat dute. Berria - Euskal Herria

Halaxe iristen zaizkio zurrumurruak gaixoari ere **cannabis** -arekin ari direla ikertzen, lortu dutela emaitzarik arratoiekin egindako entseguetan... Imanol Zurutuza

Cannabisa eta nerabeak: gurasoentzako gida. Pako Aristi

Cannabisa izpirituaren egoera bat bezala definitu beharko litzateke, arimaren aldarte baten gisa. Pako Aristi

Kanutoa piztu eta sakon hartu du hasperena, **kanabisaren** eragina burmuinetan sumatu arte. Aingeru Epaltza

Kanabisaren kontsumoa ere ziuza handiz goiti doa. Herria

Kanabisari buruzko gizarte adostasuna lortzeko oinarriak. Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan)

'**Kanabiz**' hosto baten forma dutenak? Ramuntxo Etxeberri

Oroit-arazten dute aurten sekula baino arrapaketa handiagoak burutu dituztela, hala nola 15 tona **kanabiz** arraxina. Herria

cantabile *iz* musika pasarte baten doinu izaera oharrazteko adierazpena; doinu izaera hori azpimarratuz abesten den musika pasartea.

Fraseo luzeetan, fasetean abestutako zatietan, bukaera aldeko **cantabile** espresiboan, xuxarlatutako hitzetan... emaila egokiagorik nekez topa daitekeela uste dut. Berria - Kultura

capita

1 per capita *izond* buruko. (dagokion izenaren eskuinean)

AEBen errenta **per capita** 37.300\$ da; Finlandiakoa 27.200\$. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Nazio Produktu Gordina **per capita**, baina erosketa ahalmenaren arabera parekatuta. Iñaki Heras

Solbesen hitzetan, etorkizuneko BPG **per capita** hobetu ahal izateko, ezinbestekoa da produktibitatea handitzea. Berria - Ekonomia

Adindunen urteko alkohol kontsumoa **per capita** 5-9 litrokoa da. Berria - Gaiak

Frantsesek, diotenez, beste edozein herrik baino ogi **per capita** gehiago jaten dute. Xabier Olarra

2 (dagokion izenaren ezkerrean)

Per capita errentaren arabera zehaztu beharrean, urteetan neurtu ahal delako erresuma bien arteko aldea. Edorta Jimenez

Garapena ez da, beraz, **per capita** ekoizpena handitzea, baizik eta gizakiak aukera gehiago izan ditzan bermatzea. Iñaki Heras

1970ean **per capita** elikagai kontsumoa eguneko 2.100 kalorietatik 2.800 kalorietara hazi da. Iñaki Heras

Solbesen hitzetan, etorkizuneko BPG **per capita** hobetu ahal izateko, ezinbestekoa da produktibitatea handitzea. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

capita errenta (14); **capita errentaren** (4); **dolar per capita** (3); **errenta per capita** (4); **per capita** (34); **per capita errenta** (14); **per capita errentaren** (4)

capo ik **kapo 2**

cappella

1 *a cappella* *adlag* ahots soilez.

Mendietan gairdi kantu herrikoiak **a cappella** kantatzen dabilen artzaina. Berria - Kultura

A cappella, instrumentuz lagundua, orkestrarekin lagundua eta bakarlariekin egingo dituzte saioak. Berria - Kultura

Xuberotar kantuak **a cappella**. Herría

Lehiaketa bi sail nagusitan banatu dute: **a cappella** -koa eta soinu laguntzazkoa. Berria - Kultura

capricornio ik **capricornus**.

capricornus (*orobat capricornio eta kaprikornio*) iz Zodiakoko konstelazioa; zodiakoaren hamargarren zeinua; latinez 'kaprikornioa' esan nahi du.

-Capricornus: Hemen belanak, hezurrak, giltzadurak eta azala dira eraginpean. Pello Zabala

Capricornus! Xabier Paya

Sagitarioren izterretatik, **Capricorniori** ematen zaion parte horretatik, hasi eta zortzigarren partera iristen denean, zeruko tarterik laburrenean sartzen da. Santiago Iruretagoiena

Eguzkiaren arrazoi bakar eta zuzenik ere ez dago argi, zergatik doan, udako aldeak utzirik, **kaprikornioaren** neguko tropikora eta nola, han eurt eginik, kantzeraren solstizioa duen berriz helburu; eta nola ilargiak hilabetean egiten duen eguzkiak urtebeteko denbora behar duen espazioa. Xabier Amuriza

capuccino iz esnegain apartsua gehitu zaion kafea.

Ezagunak zituen hango langileak eta mostradore atzeko zerbitzariarekin hasi zen hizketan **capuccino** bat hartzen zuen bitartean. Iñaki Zabaleta

Capuccino negargarri bana edan ondoren, mahai gainean utzi zuen neska agertu aurretik irakurtzen ari zen egunkaria. Lutxo Egia

carpaccio iz okela edo arraina oliotan, limoitan edo kidekoetan beraturik eta xerrada fin-finetan ebakirik prestatzen den jakia.

Kartakoak nahiz kartatik kanpokoak hasi zitzaigun komentatzen Arantxa, komentatzen eta gomendatzen, hainbeste **carpaccio**, boloban eta saltsa arraro artean ni behintzat galduta banangoen ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Piper morroaren esentziazko ozpin-lurrinetan beratutako hegaluzedun **carpaccioa**, parrillan erre ondoren saltsa bizkaitarrean beratutako patata eta itsaskien salda apartsua, tomate konfiturazko ohandze baten gainean. Edorta Agirre

cartel iz mota bereko enpresen arteko ituna edo elkatea, konkurrentzia saihestea, eta produktu jakin batzuen ekoizpena eta prezioa kontratatzea helburu duena.

Europako Batzordeak ikerketa zabaldu du Frantziako bederatz banku nagusien aurka, bere iritziz, herrialde horretan atzerriko finantza erakundeak sartzea eragozteko **cartel** bat osatu zutelako. Berria - Ekonomia

Bihar bilduko dira Beiruten [...] **carteleko** 11 herrialde kideak, produkzioa igo edo ez erabakitzeko. Berria - Ekonomia

Purnomo Yusgiantoro LPEEko presidentek atzo argitu nahi izan zuen azken egunetako igoera ez dagokiela **cartelaren** upelen prezioei, Estatu Batuetako upelari baizik.

Txostenak dioenez, Bilboko portuan «garraiolarien arteko lehia eragozten duen kamioilarien **cartel** bat eratu da; zerbitzu horien balizko erabiltzaileei aukera bortxaren bitartez mugatzen zaio». Berria - Ekonomia

cartesiar ik **kartesiar**.

cash

1 *cash flow* eskudiruaren fluxua.

Zerga aurreko **cash-flow** ere asko emendatu zen, %13, eta 25,06 milioi eurora heldu zen. Berria - Ekonomia

2 *cash pagatu* eskudirutan ordaindu.

Ondorioz komandoak, korsikarrek italiar *cosa nostraren* fondotik erdietsi arma material puntakoena erosten ahal zuen, **cash pagatuz**: Itxaro Borda

casino ik **kasino**.

casticismo ik **kastizismo**.

castrismo (*ETCn 1 agerraldi*) iz kastrismoa.

Castrismoaren kultur politika eta sentsibilitatea hankaz gora jartzen ditu 85 urteko agure zoragarri baten kantuak, haren arrakastak, harekiko egin den injustizia egiaztatzeak. Pako Aristi

castrista (*ETCn 9 agerraldi*) izond kastrista.

Eta horrek ez du zerikusirik **castrista** edo anticastrista izatearekin. Jon Muñoz

Venezuelarena, ordea, ez da proiektu marxista-**castrista**. Berria - Mundua

caudillo ik **kaudillo**.

cava iz Katalunian ekoitziriko xanpaina.

Gabon gaueko **cavaz** aparte ez du alkohol tantarik probatzen. Patxi Iturritegi

Donostiako Anjel Mujikak Herrialde Katalanetatik ekarri zuen **cava** Euskal Herrira, eta hemen, *Izargarai* izenarekin saldu zuen. Berria - Harian

Espainia aldeko kontsumitzaile batzuk boikota egiten ari zaie produktu kataluniarrei, eta **cavaren** orde z xanpaina erosten ari omen dira Eguberrien atarian. Berria - Ekonomia

Taloa, sagardoa, olagarroa, ribeiroa, pantumaca eta **cava** dastatzeko aukera izango da, besteak beste, gune horietan. Berria - Kultura

Euforiarik ez zen ordea atzo Oلابarri kalean, ez txanpainik ez **cavarik**. Berria - Ekonomia

Hiru astean 2.000 **cava** botila baino gehiago saldu zituen. Berria - Harian

2 sotoa.

Bazuen dendan gela berezi bat, **cava** bat, hezetasun eta temperatura-baldintza finkoak zeuzkana, puruak bere onenean kontserbatzeko. Jon Alonso

charter 1 *izond* hegaldiez mintzatuz, konpainia ofizialek arautuez kanpoko, enpresa pribatu bati dagokiona; hegazkinez mintzatuz, hegaldi txarterrak egiten dituen.

Denak hilak dira, 148 lagun, horietan 133 frantses, Egiptotik Frantziarar buruz airatua zen hegazki **charter** batean, Boeing 737 egiptoar konpainia batekoa. Herria

- Bestalde, ariko bide dira lege eta erregelamenduen zorrotzen, aireko guziet, **Charter** ala ez, segurtamen bertsua eskain diezoten ibiltzaileari. Herria

2 (dagokion hitzaren ezkerrean)

Charter hegaldi bat antolatuta zuen Osasunak, baina Iruñeko aireportua ez zegoen erabiltzeko moduan. Berria - Kirola

Tindufen eta Aaiunen bizi diren herritarrek elkar ikusi ahal izateko, **charter** hegaldiak jarriko dituzte. Berria - Mundua

Charter hegazkiez eta heien segurtasunaz. Herria

chartreuse (*orobat chartreus eta Chartreuse*) iz 1 kopa bat Chartreuse.

Ekar itzazu **chartreuse** bi! -gero bekoz beko gelditu zitzaizun begira, betaurrekoak kendurik. Koldo Izagirre

Ikusten dut ez duzula gogoko nire **chartreusa**. Koldo Izagirre

Nik uste, **Chartreusea** igo zitzaiola burura eta hark egiten zuela hitz, bere mihitik. Hasier Etxeberria

2 (hitz elkartuetan)

Sukalde frantsesa izan zen ia guztia lehenengo oturuntza hartan, hasi ahate-gibeletik, segi Borgoñako ardo lodiekien eta amaitu **Chartreuse** usain ederrekoarekin. Hasier Etxeberria

Chartreuse kopa kristalezkoari heldu zenion bare. Hasier Etxeberria

Jimpsek gerrian termo bat du eta aldanak, berriz, **chartreuse** flasko bat... Lopez de Arana

Barruan badira arropak, ohe-tapakia, artile-matazak, urdaiazpikoa, **chartreuse** faltsuzko botilak, toska fina... Koro Navarro

chauvinismo (*ETCn 55 agerraldi; orobat txaubinismo ETCn 9 agerraldi*) 1 iz abertzaletasun baztertzalea, berez frantziarra.

Ingelestanak berez ez baitu zerikusirik **chauvinismoarekin**. Berria - Kultura

Euskalkien alde banago, ez da harrokeriaz eta **chauvinismoz** ere. Koldo Zuazo

Frantziar **chauvinismoa** ez baitut sekula begi onez ikusi. Karlos Linazasoro

2 (hitz elkartuetan)

Baztertu egin zituen, gainera, **chauvinismo** susmoak, bera ez zela giputza aitortuta. Koldo Zuazo

- Heziketa tradizional honek bere hartzaileak kultur **txaubinismoaren** gaitzaren aurka immune bihurtzeko ondorio orokorra izan zuen. Iñaki Mendiguren

chauvinista (*ETCn 62 agerrald; orobat xobinista ETCn 7 agerraldi; eta txobinista ETCn 10 agerraldi*) izond abertzaletasun fanatikoa erakusten duena. ik **chauvino**.

Frantsesak sortu duen lilura horrek galdu du, nire ustez, zuberera, eta ez lapurarren harrokeriak eta jarrera **chauvinistak**. Koldo Zuazo

Eta uste zuen, beste jende askok bezala, gure kostako arrainari hobea irizten badiogu, gehienez ere itsasotik platerera bidaiari laburra egiten duelako izan daitekeela, eta **chauvinistak** garelako ziur asko. Ramon Saizarbitoria

Alferrik jardungo dute Aostako frankofonoek Italiako futbol taldea animatzen Frantziaren kontra, edo Bolzanoko aleman hiztunek gauza bera egiten, Alemania bada Italiaren aurkaria... ez dituzte **chauvinistenak** engainatuko: Italiaren etsai bat dago italiara hitz egiten ez duen bakoitzaren larrian, non?, eta Italiaren muga-mugan. Anjel Lertxundi

Historia horretan Herder anarkistek eta sozialistek ez dute gutxiago irakurri eta maitatu izan nazionalistek baino; austro-marxistek eduki dute maisutzat eta nazio zapalduetako nazionalistek inspiratzailetzat, askatasun borrokan Estatuaren aurka, inoiz ez Estatu handi menpegabeetako politikari kontserbadore **xobinistek**. Joxe Azurmendi

Gabatxo **txobinista** bat azentu andaluzarekin! Unai Iturriaga

chauvino (*corpusean txobino soilik*) izond abertzaletasun fanatikoa erakusten duena. ik **chauvinista**.

Betiko topiko ergelena berriro alegia, filosofia arroxa batean orain, betiko eskema dikotomiko sinplistik, aspaldiko superstizio **txobinoak**, ilustrazioaren errebindikaziopean eginda alafede ilustrazioaren iseka maximoa. Joxe Azurmendi

chiffonier iz altzari txiki tiraderaduna, emakumeek arropak, joste lanak, bitxiak eta kidekoak gordetzeko erabiltzen dutena.

Koltxoa azalik gabe zegoen, eta maindire marradunak **chiffonierren** gainean zeuden, bi burkoren ondoan. Koro Navarro

Chiffonierren aldamenean berogailu eramangarri bat zegoen. Koro Navarro

chile iz piper txiki mota, oso mina, bizigarri gisa eragbiltzen dena.

Papaia-entsalada baldar ikuzia eta **chile** soberaz maneiatu zerriki puska ahoratu bitartean, Charlyk enpresari tiki gisa zituen ardurez erauntsi zidan, su niretako ezegagunean. Aingeru Epaltza

chotis ik txotis.

cicerone (*ETCn 54 agerraldi; orobat zizerone g.er. ETCn 10 agerraldi*) iz hiri, museo edo kidekoen gauza interesgarrienak bisitariei azaltzen dizkien pertsona.

Ixabel nire ondoan, komentarioak eginez, **cicerone** gisa. [Joxean Sagartzizabal](#)

Orotariko harremanak usatzeko gai izaneren ote gara, haurrideak **cicerone** ditugularik? [Berria - Kultura](#)

Umbertok **cicerone** lana egin zidan bide osoan, orain etxe bati buruzko berri emanez, gero eliza baten ezaugarriak zehatzuz, hurrengoan tabernaren batean behin gertatutako istoriotxoak kontatuz. [Anjel Lertxundi](#)

Baina horretan ere, iruditzen zitzaidan ez zuela **cicerone** papera oso gogotsu betetzen. [Ramon Saizarbitoria](#)

Nik uste nuen neuk erakutsi beharko nizula hiria, baina zuk aspaldidanik ezagutzen zenuen, eta nor baino nor ibili ginen, **cicerone** lehiaketa barregarri batean. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

cintruenigoar *izlag/iz* Cintruenigokoa, Cintruenigori dagokiona; Cintruenigoko herritarra.

Hori guztia badakigu Eltsok berak auzitara eraman zuelako **cintruenigoarra**, eta auzi hori ezaguna delako. [Berria - Kultura](#)

ckricket ik kriket¹.

clochard (*ETCn 30 agerraldi; orobat kloxar g.er.*) **1** iz Parisko arlotea.

Europako hiribururen bat aukeratu ohi zuen, Paris gehienetan, eta han bertako **clochard** eta eskaleekin nahastea gustatzen zitzaion. [Joxean Agirre](#)

Ez zen **clochard** bat edo homeless bat, ez. -**Kloxar** mozorroa janztea erabakitzen duzun hurrenean, ez ezazu egin gure enpresa barrua. [Harkaitz Cano](#)

Roth bera dugu, zalantzarik gabe, bertako **clochard** alkoholizatua. [Anjel Lertxundi](#)

2 (izenondo gisa)

Idazle **clochard** baten hipotesiak kitzikatu ninduen momentu batez. [Anjel Lertxundi](#)

clown (*16 agerraldi, 2 liburu eta 12 artikulutan; ETCn 379 agerraldi*) **1** iz pailazoa. ik **klown**.

Ingalaterrako Fraser Hooper **clownak** *Strawberry* antzeztuko du Torre Luzeako parkean. [Berria - Kultura](#)

Jendea ikuskizunean inplikatu du **clownak**, edonor izan daiteke obra honetako aktore. [Berria - Kultura](#)

Larunbatean Ball-trapa handientzat eta **clownak** ttipientzat, hauek untsa irri egin baidute. [Herria](#)

Beharbada ez gaude historiari emandako pailazo handienetarikoen baten aurrean, baina lehen momentutik argi dago ondo prestaturiko emankizuna aurkeztuko digula, eta bere ofizioan erraietatik sinesten duen **clown**-a dela. [Berria - Kultura](#)

Eta arratsak luzeak baitira, kantariak, mintzalariek, **clownak** bilatzen ditugu. [Marzel Etxehandi](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Clown estiloa, magia, umore zalapartatsua, akrobazia eta, batez ere, irudimena. [Berria - Kultura](#)

Trapuzko pampina baten legez mugitzen zen, kanpotik zetorren ikusleei keinu-txantxa lotsagabeak eginez eta era guztietako bihurrikatzeak, itzulipurdi ezinezkoak eta **clown** estiloko gag-ak tartekatuz. [Berria - Kultura](#)

Hala ere, ez da **clown** antzezlan bat, clown-aren teknika erabiltzen duen antzezlan baizik. [Berria - Kultura](#)

Aratsaldez aldiz, pailaso edo "**clown**" ikusgarri politt bat. [Herria](#)

'**Clown**' ikastaroak Baionan, norberaren 'clown'-a aurkitzeko. [Berria - Kultura](#)

club ik klub.

cluster ik kluster.

cm (*orobat cm.*) zentimetroaren sinbolo nazioartekoa.

Tatami bakoitza 90 **cm** zabal eta 180 **cm** luze da. [Ibon Uribarri](#)

Pitbull bat 46-56 **cm** gora eta 16-25 kilo bitarteko izan liteke. [Gotzon Garate](#)

10 **cm** hazten zarenean zer eginik ez da, / zapi zahar bat ere ez duzu janzteko. [Josu Zabaleta](#)

Australiako aditu talde batek dio 30 **cm** igoko dela itsas maila mende honetan. [Berria - Gaiak](#)

Haren segidako heste lodiak baino diametro txikiagoa duelako esaten zaio meharrari (2-5 **cm**). [Irene Aldasoro](#)

10 **cm** duen kubo batek, adibidez, 1.000 cm³-ko bolumena izango du. [J.M. Olaizola "Txiliiku"](#)

Oriak: 448 (17x24 **cm**). [Berria - Euskal Herria](#)

Koaderno beltzean (Super Conquérant, 17 x 22 **cm**.) jasotzen ari naiz batzuk. [Anjel Lertxundi](#)

COCA (*orobat koka g.er.*) **1** iz coca-cola.

Coca bat? [Pako Aristi](#)

Coca baten bila joan nintzen sukaldaria eta klikada batez edan nuen. [Joxan Elozegi](#)

Ikusi: beltza **cocarena** duk; horia, laranjaarena. [Juan Kruz Igerabide](#)

Apustu egin, eta **coca** eta laranja edariak jokatzen zituzten. [Juan Kruz Igerabide](#)

Anna, edan **koka** bat gurekin -esan zioten. [Lopez de Arana](#)

2 (eduki neurri batez)

Mizuno jaunak, godalet bat **Coca** orduro. [Joxan Elozegi](#)

coca-cola (ETCn **988** agerraldi; orobat **koka-kola** g.er. eta **kokakola** g.er.) **1** iz edari freskagarri kafeinadun baten izena.

Coca-cola bat hartzen du hozkailutik. Antton Olano

Coca-Cola hori niretzat al da? Xabier Paya

-Eta hiru katxi zerbeza, lau tiro, sei **kokakola** eta bost ur botila! Pako Aristi

Edari on bat bakoitzak, haiek **coca cola** eta nik esne beroa, eta jo berriz. Piarres Aintziart

Jende gehienak **kokakola** eta kalimotxoak eskatu zituen. Aitor Arana

Morris **Coca Cola** bat edaten ari zen. Lopez de Arana

Egarriak hartuta, fanta edo **coca-cola** bat edateko asmotan jaiki nintzen. Joan Mari Irigoien

Koka-kola saltzeko makina bat (kanpoaldean kokatuta zegoena [...]). Oskar Arana

Bizkar-zorroa sandwich eta coca-**colaz** bete, eta ospitalera sartu nintzen. Iban Zaldua

Coca-cola eta patatazko zinema uneak. Eider Rodriguez

Aspaldiko **Coca-Cola** baten txapa gorria izan zitekeela. Joxean Agirre

Kokakola ere droga da, eta zerbeza, eta telebista... Xabier Mendiguren Elizegi

Kontrazeptibo lez **cocacola** erabiltzen genuen, azido karbonikoa espermizida zelakoan. Joseba Sarrionandia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lucindak **coca-cola** edalontzia hartu zuen. Joxemari Iturralde

Coca-cola poteak kili-kolo egin eta mahaitik erortzen da. Antton Olano

Hor dator itzulian, bi **coca-cola** lata eta plastikozko bi edalontzi handirekin. Pako Aristi

Aurrera egin du **Coca-Cola** botilarekin. Xabier Paya

Cocacola makinatik plastikozko edalontzira erortzen diren izotz zatiak. Joseba Sarrionandia

Coca-Cola banaketako kamioi herdoildu baten ondoan. Juan Luis Zabala

Coca-Cola gustuko chupa chups goxoki bat zeukan ahoan. Bernardo Atxaga

Coca-cola zaporeko muxuak goxoak dira. Eider Rodriguez

Iraganaren eta ustezko geroaren arteko zubi, **Coca-Cola** iragarkiek egiten dute argi. Edorta Jimenez

Berehalaxe atondu zuen jolas-lekua, bi **Coca-Cola** kaxa hutsen gainean. Joxe Austin Arrieta

Pizza bat jan zuen, eta **coca-cola** pare bat edan. Joxemari Iturralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi coca cola (3); coca cola (116); coca cola bat (12); coca cola botila (3); coca cola eta (6); coca cola kaxa (3); coca cola lata (5); coca colak (23); coca colarekin (3); coca colaren (16); coca colari (4); da coca (3); du coca cola (3); eta coca (19); eta coca cola (10); eta coca colak (4); ez coca (3)

cocktail ik koktail.

coda iz fonetikan, silaba amaierako kontsonante edo kontsonanteak.

Silaba-azkeneko kontsonanteak edo kontsonanteek osatzen dute silaba **coda** deritzona. Lourdes Oñederra

Silaba irekia bada, alegia, silabagune bokalikoa ondoan kontsonanterik ez badago, **codarik** ez duela esan ohi da. Lourdes Oñederra

Hizkuntza batzuetan, besterik gabe, ez da onartzen **coda** kontsonanterik. Lourdes Oñederra

Hizkuntza batzuetan, besterik gabe, ez da onartzen **coda** kontsonanterik. Lourdes Oñederra

cola-cao (ETCn **104** agerraldi; orobat **colacao** ETCn **27** agerraldi eta **kolakao** ETCn **34** agerraldi) **1** iz edari txokolateduna.

-Cola-Cao baduzue? Joxean Sagatzizabal

Eta **cola-cao** edaten ari haizela irudituko zaik, amaren ondoan, gailetekin! Pako Aristi

Nik atsegin handiz hartu nituen ekarri zizkidan **colacao** beroa eta gailetak. Iban Zaldua

Baconari "hirugiharra" deitu zion, beste bat fitxerora, eta **Cola-Caoa** ekarri zidanean, hura esnea! Joxean Sagatzizabal

Kolakaoz betetako pitxarra esku banatan. Xabier Mendiguren Elizegi

Esnea berotutakoan katiluetan isuri, gailetak eta **kolakaoa** mahai gainera atera eta elkarri so geratu ziren gazte biak Hainbesteko presa **kolakaoa** hartzeko? Jon Arretxe

Erdian, ogi xerrak, marmelada, azukrea eta **kolakaoa** zeuden. Aitor Arana

Basokada bat **colacao** hartzen du pastekin edo galletekin eta zukua. Berria - Kirola

Gaur bere ohiko **cola-caoare**n ordezk vodka edaten ari zela ikusi dut. Iban Zaldua

2 (hitz elkartuetan)

Bi hilabete geroago, titi-pare galant horrekin partekatzen ari zen ohea, komuneko papera eta **Cola-cao** potea. Aingeru Epaltza

Colacao pote erraldoi bi direla eszenografiaren elementu ia bakarrak, **Colacao** latak edozein aitzakiarekin erabiltzen direla. Berria - Kultura

Altxatzeko indarrak bildu nituenean zuk erabilitako **colacao** katilua ikusi nuen. Iban Zaldua

Ez legoke soberan orain esatea **Cola-Cao** katilukada bete-betea gosalduta zuela. Karlos Linazasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

cola cao (6); cola eta (6); cola kaxa (3); cola lata (5); du coca cola (3); eta coca cola (10); eta cola (6); eta cola cao (3)

collage (ETCn **877** agerraldi) **1** iz oihal, paper edo kideko gainalde baten gainean argazkiak, paperak edo kidekoak itsastean datzan pintura teknika.

Ur margoak, arkatzez eginitako marrazkiak, **collage** -ak eta serigrafia eta olio bana. Berria - Kultura

Orduan nahiko ezagunak ziren haren margo eta **collageak**. Iban Zaldua

Figura urdinez osaturiko **collageak**, Matisse-renak izan zitezkeenak, zituzten zintzilik. Ramon Saizarbitoria

Erretratu hori lau zatiz egindako **collage** bat bezala dagoela egina, Liburu anitzeko izenburuak, pasarteak, abestien zatiak, esamoldeak, biltzen dira bertan, adabakiez jositako **collage** batean bezala. Josu Zabaleta

990 argazki osatzen dute bi paretan estaltzen dituen **collage** -a. Berria - Kultura

Euskarri handiko **collage** koloretsuak. Berria - Kultura

Muntaketa eta **collagea**. Josu Zabaleta

2 irud/hed

Halako batean, idazmakina aurrean esertzen da eta **collage** moduko bat osatzen du material horrekin. [Eskarne Mujika](#)

36ko gerraren inguruko *The black dog* (Txakur beltza) **collage** poetikoa aurkeztu zuen atzo. [Berria - Kultura](#)

Guk **collage** handi bat egin dugu Brechtek idatzitako olerki eta abestiekin. [Berria - Kultura](#)

Baina detektibeok handik eta hemendik bildutakoaz baliatzen gara argia egiteko, **collage** bat egiten dugu bildutakoarekin, nolabait esateko, eta gero ondorioak ateratzen hasi. [Migel Angel Mintegi](#)

Horretarako, hartu nahi nituen poesia, filosofiak eskainitako hausnarketak, kalean entzundakoak, lagunei ateratako esaldiak, aipu literarioak... eta horrekin guztiarekin **collage** bat egin eta irakurleari hainbat elementu ematen ahalegindu nahi nuen, **collage** hori berak osa zezan eta osatze lan horrekin maitemintze fenomenoari buruzko ideia argi bat atera zezan. [Ana Urkiza](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Collage erakusketaren sari banaketa. [Berria - Harian](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Argazki **collage**-ak, telebista eta beste hainbat teknika nahasten dituzte. [Berria - Kultura](#)

Eta nago liburuko istorioa haurrentzat zinez erakargarria dela, eta Joao Caetanoren ilustrazio-**collage**-ek are erakargarriago egiten dutela. [Berria - Kultura](#)

Löty Negartiren lana soinu **collage** baten gisara ulertu behar dugu. [Berria - Kultura](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

collage a (3); **collage ak** (9); **collage bat** (10); **collage bat bezala** (3); **collage eta** (3); **eta collage** (10); **eta collage bat** (3); **marrakzi eta collage** (3)

compost ik konpost.

cool 1 *izond* jazz estiloez mintzatuz, emozioa murrizten duena, alde intelektuala bultzatzen duena.

Lan horietan jazz **cool** jatorrikoa Eskandinaviako folkarekin, Karibeko doinuekin eta gospelarekin nahasten du Gustavsenek. [Berria - Kultura](#)

2 *adkor* ona, superra.

Mikelek ez zuen batere **cool** izaiteko gogo izpirik! [Ramuntxo Etxeberri](#)

"Euskaraz kantatzen dut eta **'cool'** naiz! [Ramuntxo Etxeberri](#)

-Perezen betaurrekoak 'züper **cool'** aurkitu nituen! [Ramuntxo Etxeberri](#)

coolki *adlag* era cool-ean.

Adiskide zaharrak atzeman ditut eta aste hau nahikoa baba **coolki** iragan dut. [Itxaro Borda](#)

cooltasun *iz* cool-a denaren nolakotasuna.

-Betaurreko horien ukaiteak euskal **'cooltasuna'** adierazten zuen! [Ramuntxo Etxeberri](#)

copyleft 1 *iz*

Informazio askea (**Copyleft**). [Askoren artean](#)

Hori ez da copyright edo autorearen eskubideak alde batera uztea (horixe baita **copyleft** hitz-jokoaren esanahi eta funtsa), baizik eta, gure lege-perspektiba europarretik behintzat, justu autorearen eskubide jatorrizkoak erabiltzea, eta autoreak erabakiko du zer nolako lizentzia erabiliz [...] sinatzen duen kontratu bat hirugarren batekin bere lana zabalteko. [Berria - Gaiak](#)

Azaldu dutenez, **copyleft**-arekin eta anticopyright-arekin kaleratuko dituzte diskoak. [Berria - Harian](#)

Copyright-aren lekuan **Copyleft**-a bultzatzen dute: «Euren buruak kulturaren kudeatzaile ahalguztiduntzat dituzten horien aurka, eta herri sorkuntzaren alde erabili behar ditugu **copyleft**-aren moduko egitasmoak». [Berria - Kultura](#)

Beraz, **copyleft** esparrua izan daiteke aukera ona interesatzen zaizkizun testu ugarien bila aritu edo zeureak publikoaren aurrean eskegitzeko. [Askoren artean](#)

2 (hitz elkartuetan)

Jabetza intelektualaren inguruan, «mundu fisiko baterako pentsatutako lege sistemaren aldaketa beharra» jorratuko dute **Copyleft** topaketetan, adibidez. [Berria - Kultura](#)

Editatzeko **copyleft** modua erabili du Gaztesareak, alegia, libre da erabiltzailea fotokopiak atera edo nahi duena egiteko. [Berria - Kultura](#)

copyright 1 *iz* jabetza artistiko edo intelektualaren eskubidea.

Gaur entzuten diren porrusalda askoren **copyrighta** berea da. [Pako Aristi](#)

Patente eta **copyright**-ak ez dute, oro har, sorkuntza intelektualak bultzatzen. [Berria - Gaiak](#)

Patenteak eta **copyrightsak** zaharkitutako enpresa jarduna eta *Autoreen Elkarteak* moduko lobbieak babesteko baino ez dira. [Berria - Gaiak](#)

Common law-**copyright** sistema duten herrialdeetan, batik bat hain enpresa multinazional boteretsuak dituen Estatu Batuetan, enpresa izan daiteke lan intelektual baten jabea eta autorea; gure artean, aldiz, autorea beti autorea da, inoiz ez enpresa. [Berria - Gaiak](#)

Copyright-aren lekuan Copyleft-a bultzatzen dute: «Euren buruak kulturaren kudeatzaile ahalguztiduntzat dituzten horien aurka, eta herri sorkuntzaren alde erabili behar ditugu copyleft-aren moduko egitasmoak». [Berria - Kultura](#)

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, [...] baldin eta **copyrightaren** jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman. [Koro Navarro](#)

2 (hitz elkartuetan)

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen **Copyright**-jabeen baimenik gabe. [Bernardo Atxaga](#)

Erabat debekaturik dago, **Copyright**-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea [...] baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere. [Juan Martin Elexpuru](#)

Vatikanoko buruen idazki guztiak, **'copyright'** legepean. [Berria - Gaiak](#)

'Copyright' araudiek Interneten arora moldatu beharko dutela dio Bravok, lanen zirkulazio libre a saihestezina delako. [Berria - Gaiak](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

copyright jabeen baimenik (3); **edizio honen copyright** (3); **honen copyright jabeen** (3)

corpus (ETCn 2.709 agerraldi; orobat **korpus** ETCn 182 agerraldi) 1 iz izaera bereko testu bilduma zabala eta egituratua, zientzia azterketak egiteko prestazen dena.

Lumière anaien kameralariek hartu zituzten "ikuspegiak" beren berrogeita hamar segundo inguruko iraupen beti berdinarekin [...] **corpus** bikaina dira modulazio hori egiaztatzeko. [Josu Zabaleta](#)

Antzinetatik bertatik osatzen hasi zen behaketa enpiriko, esperimentazioen eta teorien **corpus** zabal bat dago gai honi buruz. [Josu Zabaleta](#)

Orduko hipotesi ausartei eutsi diela funtsean, **corpus** bibliografikoa zabaldua eta tresna akademikoak zorrozuta noski. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Euskaltzaindiak aruten hasiko du euskararen **corpus** onomastikoa eratzeko proiektua. [Berria - Kultura](#)

Hizkuntza baten azterketa beti gauzatzen da hitzen eta testuen **corpus** baten gainean. [Xabier Arregi](#)

Horra euskal esanera zaharren eta zuhurren **corpus** bikaina, nahi duenak erabili, bere CD-ROM eta guzi. [Patziku Perurena](#)

2 (gramatikaren teorien)

Hizkuntza baten zehinahi gramatikak, jasotako esaldien **corpus** mugatu eta zein bere moduan bildua, islatu egiten du perpaus gramatikalen talde (ziurrenik) amaigabeen.

[Itziar Laka](#)

Erregelok, **corpuseko** perpausen arteko egitura-harremanak adierazten dituzte, bai eta **corpusetik** kanpo gramatikak sor ditzakeen perpaus-kopuru amaigabeenak ere.

[Itziar Laka](#)

Corpus jakin baterako proposatutako G1 eta G2 gramatika birentzat, teoriak, **corpusak** iturri duen hizkuntzarako gramatikarik onena zein den esan beharko liguke. [Itziar Laka](#)

Auspoa bildumaren webgunea abian jartzeko asmoa dugu, euskal herri literaturako **corpus** aberats hori eskuragarri izateko ahaleginean. [Berria - Kultura](#)

3 izaera bereko testu multzoa.

Idazki hauekin **"corpus"** bat, ez osoa, egiteko lehen saioa. [Askoren artean](#)

Planak ez betetzeko, indarrean dagoen **corpus** juridikoa aitzakia gisa jartzen du Administrazioak. [Berria - Euskal Herria](#)

Bertsolaritzaren nolabaiteko **corpus** dokumentatu bat nahi bada, XVIII. mendearen amaiera jo behar da ezinbestean. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Arabierara itzulitako literatura helenikoaren **corpusaren** laburpen filosofiko eta zientifikoa. [Iñaki Mendiguren](#)

Frantsesaren **corpusetik** pasatu omen zen alemanera *Semptembriesier* hori. [Iñigo Aranbarri](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ahantzi gabe **Corpus** batzordea, Internet sareari itzulia. [Herria](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pierre Gros-ek demostratu du, aldiz, zein puntutaraino den faltsua gisa horretako ilustrazio: **corpus** exhaustiboa imajinatzea. [Santiago Iruretagoiena](#)

Hizkuntza: **corpusak** izanzen dira eztabadagai Donostian, urriaren 24an eta 25ean. [Herria](#)

Ingelesaren gramatika bat esaldi **corpus** mugatu batean oinarritzen da (behatutako gertakariak), eta gramatika-erregelak eskaintzen ditu (arauak). [Itziar Laka](#)

Genero bati edo beste bati ematen zaion gora, premien ondorioa izaten da, literatur **corpusean** dauden hutsuneen isla, eta mentalitate-kontua. [Ana Urkiza](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

corpus bat (3); **corpus batetik** (3); **corpus iuris** (5); **corpus juridiko** (3); **corpus juridikoa** (7); **corpus mugatu** (3); **eta corpus** (9); **eta corpus juridikoa** (4); **eta corpusa** (3); **habeas corpus** (9); **habeas corpus a** (3); **politika eta corpus** (4)

cortijo (ETCn 23 agerraldi; orobat **kortijo** ETCn 39 agerraldi) 1 iz Andaluzia eta Extremadurako landetxea, jabearentzako eta langileentzako etxebizitzak dituen.

Mutiko bat galdu egin zen etxe ondoko eremuetan, **cortjoa** zabal-handia baitzen. [Gotzon Garate](#)

Esku emateak eta musuak bakantzearekin batera urritu ziren "Buendía" **cortjoko** patio zabalean aparkatuak zeuden kotxeak. [Joxemari Urteaga](#)

Cortijoko kaparen ospatuko zen hileta-sermoia prestatzeko. [Joxemari Urteaga](#)

2 irud/hed

Gaur egun, UPN eta CDN alderdien **kortijo** pribatua da kutxa. [Berria - Ekonomia](#)

country 1 izond musika estiloez mintzatuz, folk estiloaren barruan Estatu Batuetako hegoaldeko europar etorkinen ondorengo herri musikan oinarritua dena.

Gurekin batera jende gehiago ere inguratu da, eta batez ere musika **country** lasaia jotzen hasi direnean giroa guztiz aldatu da. [Patxi Zubizarreta](#)

Pay the devil, lehen kantutik azkenera arte **country** klasikoaren ur bareetan murgiltzen den lan atsegina. [Berria - Kultura](#)

2 country musikari dagokiona.

Garagardo batzuk hartzera joan gara lauok: lokal **country** batera lehenbizi eta irlandar batera gero. [Harkaitz Cano](#)

3 (dagokion izenaren ezkerrean)

Waylon Jennings **country** izar zaharrak. [Berria - Kultura](#)

Johnny Cash **country** abeslari handiari buruzko filma. [Berria - Kultura](#)

Hizkuntzagatik ez balitz beste edonongo **country** musika entzuten gaudela esango nuke. [Edorta Jimenez](#)

Ospe bertsua ikusiko dugu **country** kantari baten abestitxo honetan: [...]. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Country taldea ikustera etorritako gizonkote bat hurbildu zitzaizen aulki bat hartzera. [Berria - Kultura](#)

Irratia **country** abesti ezagun bat ematen ari zen. [Iñaki Zabaleta](#)

Zintzurra are indartsuago karrakatuz, **country** ahaire baten lauhazka-joaldien men segitzen zuen. [Itxaro Borda](#)

Bluegrass eta **country** doinuaz osaturiko lan espiritual lasai eta klasikoa. [Berria - Kultura](#)

Martxa honetan albistea Willie Nelsonek **country** disko bat egitea izango da. [Berria - Kultura](#)

Country giroko kantuak jasotzen dituen lana. [Berria - Kultura](#)

Diskoa entzun arte ez nuke pentsatuko **country** eta reggae estiloak inoiz elkarri eskua emateko moduan egongo zirenik. [Berria - Kultura](#)

• 4 country musika.

Ausartuko da zuzenean bakarrik **countrya** jotzera? [Berria - Kultura](#)

Bai bata bai bestea **countryaren** eta folkaren arteko mugan mugitu izan dira. azken disko honetan guztiak batuko ditu: rocka, popa, psikodelia, **countrya** ... [Berria - Kultura](#)

Oso zaila da kajun musika definitzea baina esan daiteke Euskal Herrian trikilitari askorentzat erreferentzia izan dela, **countrytik** gertu dabilen musika da. [Berria - Kultura](#)

Bluesa, punka, rocka eta **countrya** egiten dituzte, eta poloak elkartzen. [Berria - Kultura](#)

Folk eta **country** alternatiboan hazitako konposaketa xume eta sendoak. [Berria - Kultura](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aurretik ere **country** -rocka egina genuen *Time between* kantuarekin. [Berria - Kultura](#)

Flying Burrito Brothers **country** -rock taldean. [Berria - Kultura](#)

Cracker **country** -pop-rock taldea sortu zuen Loweryk. *I was born, but...* filmarentzako musika egin zuen eta baita **country** -folk lan bat ere (*Wandering as water*). **Country** blues pieza dibertigarri batzuk. [Berria - Kultura](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

country alternatiboa (3); **country alternatiboaren** (3); **country musikako** (3); **country musikaren** (3); **country rock** (3); **country rockaren** (4); **folk eta country** (3)

COUSCOUS ik kuskus.

cowboy (ETCn 420 agerraldi; orobat **cow-boy** ETCn 36 agerraldi) 1 iz abereak, berez behiak, zaintzeko kontrataturiko persona.

Zergatik diote toki guztietan **cowboy** -ak direla ardiak zaintzen badituzte? [Iñigo Aranbarri](#)

Lege eta jainkorik gabeko **cow** -boy deabruak. [Itxaro Borda](#)

Ez zara **cowboy** bulartsu bat, ordea. [Xabier Montoia](#)

Cowboyak Lancia Thelma Turbo hori aparkalekura daraman artean. [Joseba Sarrionandia](#)

Bi **cowboy** homosexualen maitasun istorioa. [Berria - Kultura](#)

Ninik, hain zuzen, **cow** -boy gisako elastikoa zuen jantzita, eta Eligiok bere begien kolore urdin argi bereko jaka bat. [Josu Zabaleta](#)

Gerora beste 59 filmetan parte hartu zuen, **cowboy** -arena egiten sarritan. [Berria - Mundua](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jeans estuak eta **cowboy** kapela. [Xabier Olarra](#)

Rantxoko zaldi talde bat Kaweah errekararen ertzean zegoen ura edaten, eta **cowboy** sonbreirua jantzitako gazte bat txistuka ari zitzairen. [Bernardo Atxaga](#)

Geroxeago azaldu da mahuka jasozko **cowboy** -alkandoradun tipoa. [Joxe Austin Arrieta](#)

Cow -boy bota beltzak. [Xabier Olarra](#)

Cowboy bota punta luzedun estrafalarioak. [Sonia Gonzalez](#)

Jeansak eta **cowboy** estiloko alkandora dauzka beti soinean, eta bodyak. [Xabier Olarra](#)

Bazkalondoetan eman ohi zituzten **cowboy** filmetan. [Imanol Zurutuza](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi cowboy (7); **cowboy ak** (5); **cowboy bat** (3); **cowboy en** (4); **cowboy etako** (3); **eta cowboy** (7)

crack¹ iz bere lanbidean, eta bereziki kirol batean, maisu edo txapeldun distiratsua dena.

Ama nire hiztegiria egokitzen saiatzen zen, flirt bat, norbait **crack** bat izatea, eta abar. [Joseba Urteaga](#)

Ze **crack** tzarra! ez dauzka kide txarrak, baina greziarrak etxera berak bakarrik bidaltzeko moduan dago. [Berria - Kirola](#)

crack² iz kokainatik eratorririko droga, mendetasun handia sortzen duena.

Orduetik, milaka ikasleri egin dizkiete listu analisiak, kalamua edo haxixa erre edo kokaina, heroina edo **crack** -a hartu duten jakiteko. [Berria - Gaiak](#)

Paperezko poltsa baten barruko **crack** lurrina/arnasten ari zaren laguna: /ez dizut ulertzen, *if you know what I mean*. [Harkaitz Cano](#)

cracker iz

Cracker: suziri edo petardo txikiak; muturretik tira egin eta lehertzen direnean, danbatekoaz gain ezusteko oparixkoak ateratzen dira barrutik. [Iñaki Mendiguren](#)

Zilarrezko ontziak saltsa lodi eta alimantu handikoarekin, eta ahabi garratzez egindako saltsa... eta aztien **cracker** -ak ugari mahai guztian zehar. [Iñaki Mendiguren](#)

Harry mahaitik alde egin zuenean, **crackerretatik** ateratako gauza-pila bat zeraman berekin, besteak beste, lehertzen ez ziren puxika argitsuak, norberak bere garatxoak hazteko kit-a, eta azti-xakerako piezak. [Iñaki Mendiguren](#)

Cracker zoragarri haiek ez ziren inola ere Dursleytarrek erosten zituzten muggleen **cracker** txepelak bezalakoak, plastikozko jostailutxo eta paper sinpleko txanotxoekin barruan [Iñaki Mendiguren](#)

crackzale izond crack drogaren zalea dena.

Eta urtarrieko gau arras hotz batean Laugarren Kalearen eta B Etorbidearen arteko kantoian ezdarriaren kontra pistola bat estutu zion **crackzale** hordi hitz-totelarengatik izan ez balitz, batek daki noiz arte iraungo ote zukeen ez aurrerako ez atzerako egoera hark. [Oskar Arana](#)

crash (ETCn 165 agerraldi; orobat **krax** ETCn 64 agerraldi) iz burtsaren kiebra.

Kapitalismoaren historian bi ekonomia krisialdi nagusi nabarmetzen dira, mundu zabalean, oro har, izan zituzten ondorioengatik: 30eko hamarraldian, Wall Street-ek 1929an izan zuen **crash** ospetsuaren ondorioz gertatu zena; eta 1973an gertatu zena. [Iñaki Heras](#)

1929an Wall Street-eko burtsan izan zen **crash** izugarriaren ondotik hedatu zen krisi ekonomikoarekin batera, zenbait herrialdek bertan behera utzi zuten urreari buruzko bihurtasuna, eta ondorioz ekimenak erreka jo zuen. [Iñaki Heras](#)

Krax hark nazioarteko lankidetzaren urritasuna erakutsi zuen berriro eta, 1987aren bukaeran, gobernuen erreakzioa eragin zuen. [Koro Navarro](#)

Japonian berriz, hamarraldiaren amaiera arte, higiezin eta burtsaren **krax** bikoitzak bankuen suspertzea eragotzi zuten. [Koro Navarro](#)

crematorium ik krematorio.

crescendo 1 iz musikan, hots intentsitatearen gora egite progresioa.

Gorka Sierra telefonora duen koralk tinkotasuna hari guztien azaldu baitzuen, dinamiketan maius pianissimoetik fortissimo-ra **crescendo**-en bitartez, fraseatze lanetan txukun: aipatzekoak ziren *Kyrie*, *Agnus Dei*, *Libera me* eta *In Paradisum*. [Berria - Kultura](#)

Pieza geldoak dira orokorrean, The blue bezala, aspaldiko Us&them ederraren ahaidea, eta euren buruei jiraka hazten dira Gilmourren ohiko **crescendo** haietan amaitzeko. [Berria - Kultura](#)

Victoria eskua telefonora luzatzen, ni neu deia jasotzen, Pavanaren **crescendo** laburra diminuendo gero, eta pianoagoan ahitzen -"zoragarria iruditu zait", berak-, ostera sakonago lokartzeko. [Ramon Saizarbitoria](#)

2 irud/hed

Nire begiek atsegin handia hartzen zuten izpi argitsuei begira, eta pentsamenduak jauzika zihoazkidan abestiarena baino **crescendo** biziagoan. [Bernardo Atxaga](#)

Mami gehiagoko aldaketaren bat edo beste egingo nuke halere: telefono deien inflazioa iruditzen zait eragin dugula, eta **crescendo** horrek behar bezalako klimaxik ez duenez, hobe batzu-batzuk kentzea: [...]. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Izan ere, nolabaiteko **crescendo**-an dago egituratua Torre Luzean paratutako erakusketa. [Berria - Kultura](#)

Gainera, senak esaten zion Gizon Handiaren kritikak **crescendo** baten moduan antolatuta zeudela, eta hortaz, onenak etortzeko zeudela oraindik. [Jon Alonso](#)

3 in crescendo adlag

Lana benetako konfesioa da, pasio mingarri musikatua: hasiera eta bukaera lasaiak, tartea **in crescendo**. [Alberto Barandiaren](#)

4 (izen gisa)

Beraz, dutxatik irten eta jantzi egin da; eta eskailerak jaisten zituen bitartean igo du berokiaren kremailera, **in crescendo** metalikoa leherketa gor batean bukatuz; eta orduantxe zimiko bat sentitu du hatz batean. [Eider Rodriguez](#)

In crescendo gorrian, ahotsak oihu bihurtu ziren, erreportaria deidarka ari... herioa eta histeria nonahi. [Iñigo Aranbarri](#)

cricket ik **kriket**¹.

criterium ik **kriterium**.

croissant (8 agerraldi, 4 liburu eta artikulua 1ean; ETCn 139 agerraldi; cf **kruasana** 45 agerraldi, 19 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 401 agerraldi) iz kruasana.

Han inguruko kafetegi kaskar batean sartu ginen eta kafesne bana eskatu, nik **croissant** batekin eta amuñak suizoarekin. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Litro bat esne -gaingabetua-, ogi egin berria eta lau **croissant** poltsa batean nekartzala itzuli nintzen ordu laurden geroago. [Aingeru Epaltza](#)

Ni goizago heldua nintzen, eta lau egunkari ari nintzen aldi berean irakurtzen; haien azpian, nonbait, kafesne erdi hustua eta **croissant** baten hondakinak zeuden. [Iban Zaldúa](#)

Croissant hondarrez eta ezpain zapi potortuz gainez dagoen mahai bat garbitzera noa. [Pako Aristi](#)

cromlech (ETCn 153 agerraldi; orobat **kromletx** ETCn 13 agerraldi) iz harrespila, jentil-baratzea, mairu-baratzea.

Cromlechetan ageri zaizkigun neolitikoko aztarnak baino biziagoak baitira hizkuntzak eskaintzen eta eraikitzen dizkigun jentil-baratzeak. [Anjel Lertxundi](#)

Aita Donostiari eginiko Aginako estela ere bertan egin zuen, eta baita **cromlecha** estudiatu ere. [Berria - Kultura](#)

Aitzineko artzainen **kromletxak** eskuin aldean. [Itxaro Borda](#)

Gure arbasoen hezurmendiak omen daudela **kromletx** zahar horien azpian. [Patziku Perurena](#)

Oteizak, berriz, arte moderno bizi zuen bidegurutzeak izututa eta tribuko oihartzunak galduta, **cromlecheko** hutsunean aurkitu eta eraiki zuen sosegua, eta **cromlechean** bildu nahi izan gintuen guztiok. [Anjel Lertxundi](#)

Begira erne, begira: ez ote da **kromletx** hori, jainko zaharren bat, munduan aho zabalik, hortaz gora gelditua, lurpetik guri deika harritua? [Patziku Perurena](#)

Harritzar handi bat zen, **cromlech** berri bateko lehen harria, garai modernoetako esfingea. [Berria - Kultura](#)

Paradoxa badirudi ere, Oteiza profetikoak hitzik ezagutzen ez diogun historiaurre eta hitz-aurre horretatik bakarrik lor zezakeen hitza, hizkuntzaren bezperetako **cromlechetik** bakarrik zuri baitzezakeen bere ahulezia -edo hautamen?- linguistikoa. [Anjel Lertxundi](#)

croupier iz joko etxe batean, jokia zuzentzen, kartak banatzen, dirua ordaitzen eta bankarena egiten aritzen den enplegatua.

Croupiera Bronzeko bonet-handi batentzat, Chick bere lagunarentzako "gamelua" (dagoeneko horrela deitua), merkatu beltzeko heroina (heroia, fem.), edo usinan/fabrikari gerizak txokolatetz trenpatzen ari, [...]. [Pablo Sastre](#)

curricular (ETCn 44 agerraldi; orobat **kurrikular** ETCn 64 agerraldi) 1 izond kurrikulumarena, kurrikulumari dagokiona.

Pisa ez da ebaluazio **curricular** bat; hau da, ez da eskolan ikasitakoa bakarrik ebaluatzen. [Berria - Euskal Herria](#)

Harrera protokoloa, aurre ebaluazioa, kokapena, gelako erantzuna edo erantzun **curricularra** horren barruan hizkuntza tratamendua eta familiarekin harremana. [Berria - Harian](#)

1980 inguruan, sintaxiari garrantzi handia ematen hasi ziren metodo estrukturala; 90ko hamarkada, berriz, komunikaziozko jokabideekin hasi eta diseinu **kurrikularrekin** amaitu zen, Era horretara, dei egin zuten eskola eremu **kurrikular** hutsera muga ez dadin. [Berria - Euskal Herria](#)

2 ez-curricular

Iztuetak zehaztu zuenez, Pisaren izaera ez **curricularrak** erraztu egiten du herrialdeen arteko konparazioa, nahiz eta bakoitzak modu ezberdinean antolatu irakaskuntza. Eremu ez-**kurrikularrak** hizkuntza menderatzeko ematen dituen aukerak nabarmendu ditu. [Berria - Euskal Herria](#)

Zortzi urteko haur baten urte osoko ordutegiaren neurketan oinarrituta, haur edo gaztetxoaren hizkuntz errealitatean eremu ez-**kurrikularrak** eremu kurrikularrek adinako denbora gutxienez baduela erakutsi zuen. [Berria - Euskal Herria](#)

Hirurok ahozkotasanak hizkuntz prozesuari begira eremu ez-**kurrikularrean** duen garrantziaz hitz egin zuten. [Berria - Euskal Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eremu ez kurrikularrak (3)

curriculum (436 agerraldi, 16 liburu eta 112 artikulutan; ETCn 7.393 agerraldi; orobat **kurrikulum** 21 agerraldi, 11 liburu eta 7 artikulutan; ETCn 299 agerraldi eta **kurrikulum** g.er.) 1 norbaiten ibilbide pertsonalaren eta profesionalaren berri ematen duen

agiria edo txostena beretz edo eskuarki lanpostu kargu baterako lehiaketara aurkeztu dena.

Unibertsitatean nabilenetik egin behar izan ditudan hamaika **curriculumetan**. Proiektu horiek (idazlearen **curriculum** laburra, lanaren azalpena eta lagina) abenduaren 19rako bidali behar dira fundaziora. **Joxerra Garzia**

Bere **curriculum** profesionala eta Stendhali buruz idatzi dituen lanen fotokopiak bidali behar ditu eskari-gutunarekin batera. **Anjel Lertxundi**

Besteak hik baino **kurrikulum** hobe zian. **Iban Zaldúa**

Curriculum handiko musikariak dira. **Berria - Kultura**

Hik baino gusturago egingo luketen dozena erdi lagun **kurrikulumak** zauzkaat hemen, tiraderan. **Alberto Barandiaran**

Curriculum normal bat egina izan du, gaztaroen bikario, gero erakasle, gazte mugimenduetan omonier, katixima arduradun; aparatu gizona, denena egiten saiatzen dena. **Piarres Aintziart**

Curriculum luzea du Richard Axelek; luzeegia denak hemen aipatzeko. **Berria - Gaiak**

Kurrikulumean jartzeko moduko zerbait, edozein kasutan. **Harkaitz Cano**

Ikasleek [...] egindako ebaluaketan notarik bikainena aterata ere, berdin-berdin kobratuko du, eta, gainera, ikasleen onespenez ez dio **curriculum** gizenduko. **Joxerra Garzia**

Italian lan egindakoa da, eta dagoeneko hainbat **curriculum** bidali ditu atzerrira. **Berria - Mundua**

Pedalei eragiten ari diren dozenaka karreristen artean, berak du **curriculum** distiratsuen. **Berria - Kirola**

Lur azpiko tunela nola egin zuten, Carrero Blancoren **curriculum** beltza, autoa teilatu gainean airean... **Juan Kruz Igerabide**

2 irud/hed

Gure **kurrikulum** pribatu afektiboan eragin ikaragarri handia du gure jarduera publikoak, eta alderantziz. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan)

Kurrikulum bidalketa zaharrak bere ondorioak izan zituen azkenean eta, gabonak inguru horretan, lanpostu baterako deitu zidaten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nire lan "**kurrikulum**", adibidez. **Jose Angel Irigaray**

4 (irakaskuntzan)

Horregatik gabiltza irakasleok lehen hezkuntzako **curriculum** osatu nahian. **Berria - Kultura**

Asko hitz egiten ari dira **curriculum** propioa garatzeaz, eta lan handia egiten ari dira horren inguruan.

Gure **curriculum** OCDEko herrialdeetakoetara egokitu beharko dugu. **Berria - Harian**

Edozein herriren garapen sozial, ekonomiko, kultural eta linguistikorako ezinbestekoa da herri horren beharretara egokitutako **curriculum** izatea eskolen oinarri. **Berria - Harian**

Zortzi eta hamasei urte bitartean euskararen **curriculum** zehaztu beharra dago. **Berria - Harian**

ZTG ikasketak hezkuntza-sistemen **curriculumen** diseinuetan lekua hartzen ari dira, eta ikerketa-esparru berri gisa gero eta finkatuago daude diziplina akademikoaren artean. **Askoren artean**

Genero indarkeria **curriculumeko** ikasgaia izango dela. **Berria - Euskal Herria**

EHIGE, Sarean eta BIHERi **Curriculumaren** prozesua tratatzea leporatu diete eskoletako irakasleek. **Berria - Euskal Herria**

Udazkenean adostuko dute behin-betikoa, eta datoren urtean **curriculumari** egokitutako eduki didaktikoak sortuko dituzte. **Berria - Kultura**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mailegu bidezko doakotasunak balio gabe utz ditzake neurri batean ikastetxeko **curriculum** proiektuak. **Berria - Harian**

Eusko Jaurilaritzak eta Nafarroako Gobernuak edukien **curriculum** dekretu berriak onartu beharko dituzte. **Berria - Mundua**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erljioen kulturaren ezagutza ziurtatzeko ikasgaiaren bat egon beharko litzateke hezkuntza **curriculumean**. **Berria - Harian**

7 curriculum vitae

Kaleratzeko arrazoitzeko arrazoi ekonomikoak hedatzea, epaileek balioz gabe kaleratutakoek enpresan berriro hartzea behartu ahal izatea eta enpresa handiei izenik gabeko **curriculum vitaeak** bidali ahal izatea. **Berria - Ekonomia**

Bertan haren aurka hartu ziren neurrien berri eman, eta horrekin batera Martin Ugalderen **curriculum vitae** helarazi zion epaileari. **Berria - Harian**

Nire bilobei uzten diet aitonaren **currikulum** vitae. **Berria - Euskal Herria**

Interesatuak direnek beren "**curriculum vitae**" igor dezatela orain beretik, helbide huntarat: Ecole Immaculée Conception, 64240 Aiherra. **Herria**

7 euskal curriculum

Euskal **curriculumaren** edukiak gaitzetsi dituzte Berez, euskal **curriculum** osatzeko ardura ez dagokio Jaurilaritzako Hezkuntza Sailari. **Berria - Euskal Herria**

Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal **Curriculum** oinarritzko txostenari 13 ekarpen egin dizkio. Euskal **kurrikulumaren** bultzatzaile izatea. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

curriculum ofiziala (3); **curriculum proiektuak** (4); **curriculum propioa** (8); **eta curriculum** (4); **euskal curriculum** (4)

bere curriculum (4); **curriculum diseinatze** (11); **curriculum diseinatze prozesuan** (7); **curriculum egiteko** (4); **curriculum eta** (8); **curriculum eta euskal** (3); **curriculum euskal** (3); **curriculum euskal herri** (3); **curriculum ezartzeko** (3); **curriculum lantzen** (3); **curriculum osatzeko** (15); **curriculum osatzeko prozesua** (4); **curriculum praktikan** (3); **curriculum sortzeko** (9); **curriculum sortzeko prozesua** (4); **curriculum sortzeko prozesuan** (3)

curriculumak ez (3); **da euskal curriculum** (5); **dira euskal curriculum** (3); **donostia euskal curriculum** (3); **eskolaldirako euskal curriculum** (5); **eta euskal curriculum** (4); **euskal curriculum** (118); **euskal curriculum diseinatze** (11); **euskal curriculum eta** (4); **euskal curriculum euskal** (3); **euskal curriculum lantzen** (3); **euskal curriculum osatzeko** (8); **euskal curriculum praktikan** (3); **euskal curriculum sortzeko** (9); **euskal curriculumak** (7)

curriculumaren alde (4); **curriculumaren aldeko** (4); **curriculumaren diseinuan** (3); **curriculumaren inguruan** (5); **curriculumaren inguruko** (14); **curriculumaren inguruko azalpenak** (3); **curriculumaren inguruko eztabaida** (4); **curriculumaren prozesua** (4); **eta euskal curriculumaren** (4); **euskal curriculumaren** (63); **euskal curriculumaren alde** (3); **euskal curriculumaren aldeko** (4); **euskal curriculumaren diseinuan** (3); **euskal curriculumaren inguruko** (14); **hezkuntza euskal curriculumaren** (3)

curriculumari buruzko (4); **euskal curriculumari** (17); **euskal curriculumari buruzko** (4); **euskal curriculumaz** (5); **euskal curriculumean** (7)

kantzer² ik cancer.

kaprikornio ik capricornus.